

zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26666 - PREZIOA 3 PEZETA

GURE LITERATURA EZ SAINDUA

Iruzkin batzuek Irigaray-ren lanari buruz

Maihegi entzun degu euskal literaturan ez dagoala ezer baliozko-rik, erlijio gaitik kanpora. Oso zahaldua dagoan uste orreke ez digu penarik ematen euskal kulturak batera inportik ez dión bategandik datorrenca. Guzok bai dakigu proporzioz erlijio gala askoz ere gelago landua degula euskal literaturara (Erljioso ez geranon lotsarirako eta erlijioso diranen ohore-rako. Bakoitzak bere eltzari ga-tza). Ori, ukatu ezin genezakean egia da. Baiña orreke ez du esan nai literatura ez zaindua ere ez degunik. Eta sarri penatu gera euskaltzale dirala esaten dutenen-gandik, ta gainera beren buruak kulturazalezat edukirik, gure li-teraturan ez dagoala ezer merezi-garririk esan digutenean. Ori esan-ten dutenak, bear bada, jakingo dute zer bait kondaira eta politika-ri buruz, baiña oso guixi gure li-teraturari buruz. Egi negargarri au-usto baino askoz zahalduago da-ago gure errian.

Uste oker oiek gezurtatzera da-itorrigu Algeru Irigaray euskal-tzainak oraintxu, "Principe de Viana" aldizkariaren 98-99 zenba-kiari argitaratu digun, Esbozo bio-bibliográfico de Literatura Eusca-ra profana (Del siglo XV al XX), 28 orrialdeetan adierazten duan lan mamitua.

Ez da lenbiziko aldiz Irigaray medikuak era onetako lana eskain-tzen diguna. Amalka argibide ta irizki eman digu gure literatura zaarrari buruz.

Oraingo onetan ere atal ez eza-gun, edo gutxi eza-gun, askoren ar-gibideak ematen ditkigu, aburu jakingarriak erantsirik. Bere lan-nak, amabosgarren mendetik ogel-garrenera arte ditugun erlijioz kanporako lanik berezienak baka-rrik dakarzki. Orregaitik, egilleak, bukaeran agintzen digu lanaren jarraitpidea nolobait agertuko due-la. Beto lenbait-len.

XV-garren mendeko Oñaz ta Ganboar eta Agramot ta Beaumont guduetan sortutako kobla-zaarrek in ekiten dio, pastoral eta txaribari, ihauteri solas oinarritzat arturik. Ondorean, zenbait egille-

ren bizitza ta lanen berri ematen du beren atal autatu batzuek jar-riaz. Atal oiek euskeraz eta erdo-razko itzulpenez ematen ditu. Egi-lle eza-gunen arteko jartzan ditu: Bernat Etxepare (Linguae Vasco-num Primitiae, 1545-ean argitara-tuaren egillea) Oihenart (1582-1667), Joanes Etxeberri (1668-1749), Juan Antonio Mogel (1745-1804), Estueta (1767-1845), Agustín Pas-kual Iturrriaga (1778-1851), Uliba-rrri (1775-1847), dira autore-zaar-re-tatik berezikil artu dituanak. Bes-te askoren alpamenekin ere balla-izen delarik, bere aburuak jarze-ko.

Azkenek eta Barandiaranek bli-dutako azoko literaturari ere nai-koa goresmen ematen dio. Merez-i ere, ondo merezi dute, Eta, buka-tzeko, Bonifazio Latza-ren Bizka-ko erri teatrua dakar, atal zirika-lari batzuen bidez lanaren gaitza ta piperra agertuaz.

Gainera, ez dira atalik bortitze-nak bertan jaso dituan oiek. Gure literatura noralño eltsen dan ja-kinerazateko, Etxepare baten atal erotiku bat aski zan neurri beza-la, adibidez "Emasten fabore" poe-siaren amabost eta amaseigarren bertsoak.

Baiña, afa ere bada argibiderik aski, Aukeratu dituan zaleetan, gaurko literatura moldeen indarra nabari da: gauzak zuzenki azaltze-ko era, gauzak adierazteko inda-rra, izkutuko misterio kutsua, gu-zia biotz-zauskadaz betirik.

Irigaray-ren lan jakingarriak ez du aspertzen. Era orretako lan deag ikusirik eza-gun da, ikaskizu-nik aski duen, Sara'ko Joanes Etxeberriren lezio ura ez dakitela;

asko bear genituzke, ta aisa zahal-du liburu ta aldizkarietan erdera-ren bidez; ta erbestekua alntzat arturik bertakoak ere esnatzen di-ran. Gure literaturako lanetatik, mercezi duan gutia erderaz adiera-zi bearrean gaude, katalanag egin izan duten bezala. Euskeran ere bada-la edo al dala erakutsi, eus-kalduna arduratu dedin.

Gainera, oraingo idazle askoren artean ere bada lengoak eza-gutze-ko premia. Zenbaitzen idaz-mol-".Izenen deklinazioak, berbeon konjugazioak eta mintzatzeko manerak Euskerarenak dira; eta hauk hunela direnaz geroztikan, ezin erran diteke gertzetarik due-la bere etorkia, zeren hauntan bal-tago hizkuntzaren gora bera gus-tia".

Afa ere, alegiñak alegin, larri naitz euskaldunari alperrikako deletan ez ote gabiltsan. Gure erria biziki maiztzen duen kultura zale askori bost ajota euskerak, eta erriak ez du kultura egarririk, ba-tez ere gure jatorrizko kulturare-nik, eta ori gabe etorkizunera-ko iturririk zeari agortzeko bideetan daude.

Irigaray-ren lana Irakurtzen duenak (Merez-i du irakurtzea eta egille beraren bidez arkitu lezake lan au. Bere zuzenbidea: Esnaola, 15, Donostia) ezingo esan euskal literaturan erlijio gaitetik aparte ezer merezigarririk ez dagoanik. Ortaz, Lafitte, Mitxelena ta Villa-sante jaunen euskal literaturaren kondairak ere nai-koa argi ematen badute, Irigaray'rena, ortaz soilik, interesgarriagoa azaltzen da nor-nalren begietarako.

J. SAN MARTIN



Aita Frantzizko Bitoria'ren Eguna

ARGIZAR

Estaz atzokoa Aita Bitoria, Gaztelz'ko seme sonatua. Oraintze lareun da ogel urte jaios, izan du munduan bere izenaren ospea. Oraintze ogel urte Bitoria'ko urian egin ziran bere laugarren emurteburuaren jaiak, eta aietan erabakia artu zan: Abuztuaren 12'garren eguna Aita Fran-tzizko Bitoria'ren Eguna Mundu guzian izan zedilla.

Ordukoa da Gaztelz'en, bere ibiltozikik ederrenean ikusten degun Irudi arteisua ere. Gaztelz'ek bere seme jatorra orrela goratu nai izan zuan. Egun aietan, Bitoria'ren izena daraman Elkarguntzak, bildu gi-tuan alde guztetatik, alako izari yayoak. Laterrien arteko artu-eman-tan kontuan artzen dan Eskubide Arauari Bitoria Aitak eman zion asie-ra ta oinarria.

Aurtengo Aita Bitoria'ren Eguna igaro zaigu, ta urtetik urtera Egun au beste askoren artean aitagarrri izango degula uste degu. Gaur ogel urte erabaki ziran egitekoak bere bidez beteko diralakoan gaude, bei-nepein.

Geroago ta eza-gunagoa da alde guztietan pralle onen izena ta berari zor diogun erakutsia eskubide saillean. Afa sortu da bere Irudi bat Ma-txo'k O.E.A.'rako egina ta besteaz Gaztelz'en Fresno'ko Markosen etxo aurrean. Auek Aita Bitoria'ren ondorengoak bal-ditugu: Bitoria Arkala Ielñukoak.

Arkalatar auek, Ganboa ta Oñaz'tarren burrukan Ganboastarren al-derdia artu zuten berentzako. Orregaitik esan zuan bein Aita Bitoria'k garbi asko: "Ni Ganboa naitz". Ba-du esan oiek, alako antzizko liskar aietako usala. Gure Aita Nagusiak alako naste ta odol-izurtzeak egin zituzten euskaldunon artean. Gaur beste burruka batzuek ditugu Eus-kalerrian. Gure esku danden gauzak benetan artzen ikas bear degu eta batezere, gure istori sailia agitira ateratzeko alegiñak egunetik egu-ne-ra ugaidu bearrean gaude.

Islpilu ederra degu ontan Aita Bitoria'n bizitza ta jokieran. Mundua bere jakitez esnatu ta bizia artan urturik, 1546'garren urteko Abuztu-aren 12'an situ zan Salamanka'ko San Esteban Kontuentan gure arabar sonatua.

Azkeneko galiza oso mingarria izan zuan. "Itz bakoitza, aieneko bat kostatzen zait" zion berak. Afa joan zan mundu ontatik Gaztelz'ar pral-le ospetsua.



LOIOLA'KO IRRATIA BERRIRO ASI ZAIGU BERE

"FRECUENCIA MODULADA" bidez bere irratsasolak zabaltzen. Berri poz-garri au zabaidu bearrekoa da euskaldun guzian artean. Eta entzun degunez, uste baiño gelago zabaltzen da bere Irrada. Euskal-Irratentzuleok, kontuan artu au ta entzun Santutegi artatik bliatzen dizkituzen euskal saiok.